

**ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA “URKIOLA”**  
**“URKIOLA” DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA**  
**ESTATUTUAK**

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- 1987.eko martiaren 2an B/391/1987 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako “ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA URKIOLA-URKIOLA DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA” deritxan alkartearen estatutu honeek aldatu egin dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen dauen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen danagaz bat etorritz.

“ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA URKIOLA-URKIOLA DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA” honako manu honeen mende egongo da: aipatutako alkarteei buruzko legea, estatutu honeek (legearen aurkakoak ez badira), alkartearen gobernu-organoei behar bezala hartutako erabagiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dauzan erregelamenduzko xedapenak (azken horreek osagarriak izango dira).

ALKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Honatx alkarte honen HELBURUAK:

1. Landa-Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legean eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren landa garapeneko xedapenetan batutako helburu orokorrak eta/edo arlokoak lortzea.

2. Honako helburu estrategikoak honeek lortzea:

2.1 EAEko landa-espazioa sustatzea eta babestea, bereziki nekazaritza-jarduerak okupatutakoa eta mendi-eremuak, EAEko lurraldea egituratzen dauen eta lurraldearen paisaia bereizgarriena

osatzen dauen funtsezko elementu gisa.

2.2 Erakundeen arteko beharrezko koordinazioa bermatzea EAEko landa-eremuen jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko, herrialdearen ekonomia jasangarria garatu daiten laguntza emoteko eta landa-eremu horreetan biztanleria eta zerbitzuak ezarri daitezcan, betibe landa-ingurunean funtsezkoa dan lehen sektoreko jarduera errespetatuz.

2.3 EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hiri-biztanleen ongizate-mailarekiko parekatzea, bai eta landa-ingurunearen despobulatzeari eta zahartzeari buelta emotea bere, funtsezko faktorea baita Euskadiko gizartearen eta lurraldearen kohesiorako.

Helburu horreek NBEren Garapen Jasangarriko Helburuakaz eta klima-aldaketaren aurka burrukatzeko 2015eko Parisko Hitzarmenarekin bat etorri bultzatuko dira.

### 3. Honako helburu orokor honeek lortzea:

#### A) Euskal landa-gunea zaintzeko

I) Euskal landa-gunearen lurralde-antolamendua behar bezala egitea, ikuspegi integrala, sistemikoa eta sektore anitzekoa eukiko dauen lurralde-garapeneko eredu jasangarri orekatu baten arabera, ingurunea despobulatzea eta uztea saihestuz, indarrean dagozan lurraldearen antolamenduko tresnekin bat.

II) Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen jasangarritasuna eta funtzio-aniztasuna, euskal landa-gunearen kudeatzaile nagusia, aberastasun- eta enplegu-iturria eta euskal gizartearentzako oinarritzako ondasunen hornitzailea dalako, lurraldearekiko errespetua dauen nekazaritzan oinarritutako ekoizpen ereduaren alde eginez.

III) Natura-ondarea eta paisaia zaintzea, ikuspegi integral batetik. Ikuspegi horrek buztartu egingo dauz ingurumen-babesari, -kontserbazioari eta -leheneratzeari buruzko araudien betetzea baliabideen aprobetxamendu jasangarriagaz, garapen sozioekonomikoagaz eta

gizarteak naturaguneez gozatzeagaz, horretan bizi diranen bizimodua eta jarduerak errespetatuz.

IV) Energia sortzeko iturriak deszentralizatzea eta landa-ingurunea energiaren hornitzeko instalazio txikiak bultzatzea. Horreek bateragarriak izango dira ingurumena eta lurraldea zaintzeagaz eta mantentzeagaz.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan jarduera ekonomikoa sustatu eta dibertsifikatzeko.

V) Euskal landa-ingurunean ekintzaitza eta barne-ekintzaitza sustatzea; xede horrekaz, enpresa-dinamismo endogenoa indartzea eta barrikuntzari lotutako ekintzaitza-agertoki barriak aurreikustea, bereziki lurralde adimendunaren («smart territory») testuinguru digitaletan, baita landa-eremuko balio-kate barriari lotutakoak bere, balio-kate horreek onura sozial argiak ekarriko bait dabez bioteknologiaren, ekonomia sozialaren eta ekonomia zirkularraren arlotik, eta lanpostu egonkorak eta kalitatezkoak sortuko bait dabez.

VI) Ekonomia dibertsifikatzea eta enpresak sortzea euskal landa-ingurunea, nekazaritza-jardueraz gain, hazkunderako indar handia daukien nitxo ekonomikoetan: turismo jasangarria, osasuna eta ongizatea, elikagai-industria, gastronomia eta jatetxe-arloa, abenturako aisialdia, energia berriztagarriak, artisautzaren merkataritza eta abar. Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak sustatzea, hau da, materia eta energia globalen hornidura-kateetatik eratorritako inpaktuekiko erresilienteak diranak, landa-erakundeei aberastasuna sortzen deuseenak eta ingurumen eta klima-helburuak betetzen laguntzen dabenak.

C) EAEko landa-biztanleen ongizate-maila hobetzeko eta biztanleria horren zahartzeari eta despopulazioari buelta emoteko.

VII) Landa-inguruneko biztanleei bizi-kalitate ona

bermatzeko beharrezkoak diren azpiegitura, zerbitzu eta ekipamendu publikoak hobetzea, hareetarako sarbidea bermatuz aukera-bardintasunean uri-inguruneko biztanleakaz.

VIII) IKTak erabiltzea, landa-eremuetako biztanleen bizi-kalitatea eta lana hobetzeko nahiz landa-ingurunearen isolamendua arintzeko bidea dan aldetik.

IX) Landa-ingurunean etxebizitzarako erispidea izatea, eremu bakoitzaren ezaugarri sozioekonomikoak eta paisaia eta ingurumen arloko ezaugarriak errespetatzen dauzan urigintza batean oinarrituta.

X) Landa-ingurunearen natura, kultura eta identitate-ondare materiala nahiz immateriala babestea. Hain zuzen bere, nahitaezkoa da ondare hori kontserbatzea, indartzea eta balioan jartzea, etorkizuneko belaunaldiei begira.

XI) Barrikuntza landa-ingurunean txertatzea, eraldaketa sozial, diziplina anitzeko eta sistemikoaren ardatza dalakoan.

XII) Landa-ingurunean despopulazioaren aurka burrukatzea, zerbitzu espezifikokoak emonez, bereziki hezkuntzan eta osasunean, seme-alabak daukiezan familiak finkatzen eta jaiotza-tasa handitzen laguntzeko.

4. Landa-inguruneko politika instituzionalen helburu sektorialak honeek lortzea:

4.1. – Instituzio eta erakunde eskudunek, koordinatuta, horreen jardueran artikulua honetan ezarritako helburu sektorialak lortzea izango dabe xede, eta kontuan hartuko dabe Landa-Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 7. artikulua arabera gerora erregelamendu-garapen bidez ezarriko dan landa-eremuen karakterizazioa.

4.2. – Helburu horreek lagungarriak izan beharko dabe landa-ingurunea nahiz landa-ingurunearen arazoak eta funtzionaltasuna ikuspegi orohartzaile batetik ikusteko; bide horretatik, diskriminazio positiboa eta haztapen malgua ahalbidetu beharko dabez politika sektorialak modu malgu batean aplikatzerakoan, populazio-arloan edo erabiltzaileen arloan erispide ekonomikoak do gitxieneko atalaseak erabiltzeari jagokonez.

4.3. – Honako honeek dira helburu sektorialak:

A) Lurralde-antolamenduaren arloan.

I) Bidea emotea Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (LAG), lurralde-plan partzialak (LPP), lurralde-plan sektorialak (LPS) eta uri antolamenduko plan orokorrak (HAPO) onartzeko edo berrikusteko prozesuak landa-gunea zaintzeko lagungarriak izan daitezten, eta Landa-Ingurunearen Garapenaren ekainaren 30eko 7/2022 Legearen 9. artikuluan aurreikusten diren lurralde-garapeneko programetan (LuGP) jasotako beharrizan eta estrategiak kontuan hartu daitezcan horreek idaztean.

II) Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean eta Euskadiko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoaren abenduaren 23ko 17/2008 Legeko II. titulutik sortutako araudian jasotzen diren tresnak, nekazaritza-lurrak babestekoak, garatzea eta aplikatzea, tresnok funtsezkoak baitira nekazaritza-lurrak bertan behera uztea eragozteko eta haren artifizializazioa saihesteko, elikagaien hornidurarekiko betetzen daben funtzioa babestua.

III) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen barruan adierazotea eta adostea landa-gunea kontserbatzeari jagokonez antolamendurako edozein tresnatan kontuan hartu beharko diran erispideak.

B) Nekazaritzaren, basogintzaren eta elikaduraren arloan.

I) Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna handitzea, eta

horretarako produktuen berezitasunerako pizgarriak emotea kalitatean, ingurumen-jasangarritasunean eta elikadura-segurtasunean oinarrituta; ekoizpen naturala eta ekologikoa sustatzea; sektorea egituratzen laguntzea asoziazionismoaren eta kooperatibismoaren bidez, eta merkataritza-sustapena egitea sektorearen produktibitatea nahiz ekoizpen-kostuak optimizatzeko, arreta berezia eskainita garapen endogenoko jarduketei eta merkaturik hurbilenetan egin beharreko sustapenari. Lehentasunezko arreta eskainiko jake familia-ustiategiei, bereziki horreen titularra emakumea edo nekazari gaztea danean.

II) Baso-kudeaketa jasangarria eta orekatua bultzatzea, baso autoktonoak eta jarduera tradizionalaren osagarri izango diran aukera-nitxo barriak sustatuz eta enplegu egonkorrak, seguruak eta kalitatezkoak sortuz eta mantenduz, horretarako bitartekoak ezarrita.

III) Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Planarekin koordinatuta, nekazaritzako elikagaien industriaren garapena indartzea, bereziki lehen sektorearen eragile dan horren garapena, eta elikaduraren balio-katean integrazino bertikala egiteko prozesuak bere bai; horren haritik, balio-kate horretan garrantzi handiagoa emongo jake ekoizleei, gastronomia-ondarea errealizatzeko eta balio erantsi handiagoa sortzeko bitartekoak diralako.

IV) Nekazari-errentari eusten laguntzea, Nekazaritza Politika Erkidearen finantza-baliabideak optimizatuz eta behar bezala kudeatuz.

V) Belaunaldi-aldaketa bultzatzea sektorean, familia-nekazaritzarekin batera, eta emakumezko nekazariiei protagonismo handiagoa emotea, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legean xedatutakoagaz bat.

VI) Erraztea eta ikuskatzea lehen sektoreak ekoizpen-kostuak baino prezio handiagoak jasotzen dauzela bere

produktuen truke, horrela ezartzen bait dabe Estatuko araudiak (Elikadura Katearen Legea) eta Europakoak, sektore bideragarri eta lehiakorrari eusteko helburuagaz.

VII) Euskal nekazaritza-ekologiako ondarea mantentzea eta bultzatzea.

VIII) Lehen sektoreko produktuak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzea sustatzea, banaketa- eta merkaturatze-kanalak sustatuz.

IX) Europar Batasunaren Baserritik Mahaira estrategia babestea eta hori garatzen laguntzea.

X) Kontratazio publiko arduratsuko baldintza-agiriak sustatzea, gizarte- eta ingurumen-erispideak lehenesteko helburuagaz.

C) Natura-ondarearen eta ingurumenaren kontserbazioaren arloan.

I) Iraunarazoteko eta leheneratzeko lanetan laguntzea ekosistemetan eta ekosistemen zerbitzuetan, bereziki Natura 2000 Sareko gune eta habitatetan, bai eta abian jartzen diran ekintza-planetan katalogautako paisaietan ere. Horretarako, kudeaketako plan eta tresnak bateragarri egingo dira basogintza- eta abeltzaintza-arloko eta ekonomia arloko jarduera tradizionalekin; jarduera ekonomiko berriak garatzean, barriz, kontuan hartu beharko da gune horreek kontserbatu behar dirala eta euskal herritarrek espazio horreetaz gozatzea.

II) Naturagune babestuek eta, bereziki, Natura 2000 Sareak sorrarazten dituzten aukerez eta kanpo-efektuez baliatzea landa-eremuetako jarduera ekonomikoa dibertsifikatu eta sustatzeko.

III) Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategia eta Europar Batasuneko 2030erako Biodibertsitateari buruzko Estrategia garatzen laguntzea.

IV) Ingurumena babesten laguntzea, ingurumenaren hondaketari aurrea hartuz eta kaltea jasan dauen lekuetan leheneratzeko bidea emonez, uraren, lurzoru emonkorraren, biomasaren, biodibertsitatearen eta paisaiaren kudeaketa iraunkorraren bitartez, giza jardueren eta lurraldearen kontserbazioaren arteko oreka bilatuz.

V) Klima-aldaketaren arloko EAEko helburuek Europar Batasunaren helburu klimatikoekin lerrokatzea.

VI) Neurri jasangarriak sustatzea ekosistemen zerbitzuak eta nekazaritzako eta basogintzako jarduerak ingurumenaren arloan ekarritako beste kanpo-efektu positibo batzuk bultzatzen laguntzeko, eta horren aintzatespen soziala erraztea.

D) Landa-inguruneke sare ekonomikoaren dibertsifikazioaren eta enplegu-sorreraren arloan.

I) Kalitatezko enplegu egonkorra sortzen sustatzea eta laguntzea, landa-eremuetako biztanleek aukera bardinak izan dagiezan. Horretarako, arreta berezia jarriko da emakumeentzako, gazteentzako eta enplegua lortzeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuentzako programa espezifikoen garapenean.

II) Ekintzailtzari eta landa-ingurunean eragina daukien enpresen sorrerari laguntzen dautsien funts, programa eta jarduketa instituzionalak koordinatzea, kalitatezko enplegu egonkorra sortzeko eta mantentzeko.

III) Lanaren antolaketarako eredu barriak garatzen laguntzea. Horretarako, oinarri hartuko da ekonomia soziala, solidarioa eta lankidetzakoa. Horreen garapenaren bidez, kalitatezko enplegua lortzeko eta belaunaldien arteko erreleboa eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko, informazioaren teknologia berriek, berrikuntza teknologikoei, bioekonomiak, digitalizazioak, 4.0 industriak, 4.0 nekazaritzak eta 4.0 abeltzaintzak



eskaintzen dabezan aukerak aprobetxatuko dira.

IV) Euskal landa-ingurunean enpresa txiki eta ertainak eta mikroenpresak atzitzeko eta egonkortzeko tresnak eta ekipamenduak bideratzea; horretarako oinarrizko zerbitzuak txertatzea, esaterako finantza-, aseguru-, aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak, enpresa-bilbeari testuinguru trinkoa eta fidagarria ziurtatzeko eta, halan, testuinguru horretatik abiatuta lan egiteko.

V) Landa-ingurunean guneak gaitu eta dinamizatzea, gune fisiko nahiz birtualak, non ekintzaileek euren ekintzailtza-prozesua garatu ahalko daben, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana sustatuz eta gune horreen sareko kudeaketa bultzatuz.

VI) Landa-turismo jasangarria sustatzea, bai eta jarduera horri lotutako jarduera ekonomikoak bere, esaterako, gastronomia, merkataritza, tokiko merkatuei lotutako ekipamenduen modernizazioa, nekazaritza-turismoak, kanpinak, landetxeak eta ostatu-eskaintzako beste modalitate batzuk. Horretarako, landako ostatu-establezimenduen garapena bultzatuko da, masifikazioa saihesteko eta jarduera tradizionalak eta natura-ingurunea errespetatzeko helburuagaz.

VII) Ekosistemak eta ekosistemen zerbitzuak iraunarazoteari eta leheneratzeari lotutako jarduera ekonomiko jasangarriak bultzatzea, eta biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzen laguntzen dabezanak be bai.

VIII) Prestakuntza-programak garatzea, ekintzailtza eta barne-ekintzailtza sustatzeko eta landa-ingurunean enpresa-dinamismoa indartzeko.

IX) Emakumeen presentzia handiagoa sustatzea landa-inguruneko enpresa, kooperatiba, alkarte eta, orokorrean, erakundeen erabaki-organoetan, ingurune horretan emakumearen ahalduntzea indartzeko.

X) Landa-ingurunean lehen mailako jarduera dibertsifikatzen eta jarduera barriak garatzen laguntzea.

XI) Landa-ingurunean lehendik dagozan jarduerak indartzea, horreen modernizazioa bultzatzea eta jarduera barriak ezartzea ahalbidetuko dauen politika fiskala garatzea.

E) Landa-nukleoetako eta landa-entitateetako oinarrizko azpiegituren arloan.

I) Energia barriztagarri eta jasangarriei lotutako azpiegituren garapena indartzea, bereziki baso-biomasa erabiltzen daberen azpiegiturena, helburu hirukoitz batez: Euskadiren energia-nahikotasuna handituko duten energia-forma garbiak sortzea; ekonomiaren garapenerako nitxo barriak inplementatzea, eta baso-azalera handien kudeaketa ziurtatzea, holan arrisku naturalak saihestuz eta lurraldearen iraunarazopenean lagunduz, eta iturri barriztagarri eta jasangarrietatik sortutako energiaren autosorkuntza eta autokontsumoa erraztea, bai landa-guneetan, bai nekazaritza eta abeltzaintzako ustategietan.

II) Kalitatezko oinarrizko azpiegituren sare bat bultzatzea, zeinak bermatuko bait dau landa-inguruneke biztanleriak ur-, saneamendu-, telekomunikazio- eta elektrizitate-hornidura zerbitzuak eskuratu dagiazan.

III) Landa-eremuetako mugikortasuna erraztea eta, horretarako, errepide- eta bide-sarea eta garraio publikoa hobetzea, eta landa-eremuetako biztanleriaren egoerari eta beharizanei egokitzen jakezan sistema alternatiboak sustatzea, mugikortasun jasangarria bultzatuz.

IV) Landa-entitate, -udalerrri eta -eremuetan ibai-arroak atontzeko eta leheneratzeko proiektuetan laguntza ematea.

V) Lantegiak, eraldaketa-zentro txikiak, hiltegiak eta antzeko azpiegiturak sustatzea, ekoizpen-eredu

jasangarriagoak bultzatzeko, etorkizunean elikadura-autosufizientzia handitzeko eta 0 km-ko elikagai seguru, osasungarri eta kalitatezkoen hornitzaile izateko.

#### F) Etxebizitzaren arloan.

I) Kalitatezko etxebizitza-politika bat bultzatzea, landa-ingurunearen beharrei eta aukerei egokituta, ingurune hori ohiko bizileku gisa erakargarri bihurtuko dauena, espekulazioa saihestuko dauena eta landa-inguruneke gazteei bidea emongo deusena etxebizitza eskuratzeko.

II) Landa-inguruneke biztanleria mantentzea eta handitzea. Xede horrekaz saihestuko da biztanleriak eremu horreek uztea eta populazio-dentsitate handiagoko beste batera joatea; gutxieneke biztanleriari bide emongo jako, iraunarazoteko eta zerbitzu barriak abian jartzeko, bereziki osasun- eta hezkuntza-zentroak, eta populazio barria kokatzea erraztuko da, modu ordenatuan.

III) Ondare higieztina hobetzen eta kontserbatzen laguntzea, eta holan, ondare horren nortasun kulturala zaintzea.

#### G) Hezkuntzaren, kirolaren eta kulturaren arloan.

I) Behar diran zerbitzuak ezartzea landa-eremuko biztanleriak hezkuntza-eskaintza behar bezala eskura dagian bultzatzea, biztanleria horren berezitasunak kontuan hartuko dabezan erispide eta baremoak erabiliz, bereziki derrigorrezko irakaskuntzari jagokonez, urrunen dagozan eta tamaina txikiena daukien biztanle-guneetan.

II) Irakaskuntzaren kalitatea sustatzea, euskal landa-ingurunearen eta, batik bat, lehenengo sektorearen berezitasunei egokitzen jakezan hezkuntza-arloke eredu, teknika eta jarraibide berritzaileetara joz; eredu, teknika eta jarraibide horreek, era berean, landa-eremuetako biztanleek ezagutzeko eta baloratzeko modukoak izango dira, eta lehentasun gisa eremu horietako emakumeen eta gazteen prestakuntza eta gaikuntza bultzatuko dabez.

III) Landa-eremuetako biztanleen unibertsitateko, lanbideko eta lanerako prestakuntza sustatzea, biztanle horreen beharrizan zehatzei egokitutako prestakuntza garatuz.

IV) Hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak orokorrean antolatze bidea emotea, eta horretarako, balio eta funtzio anitzeko ekipamenduak sustatzea, eta dagozan desorekak zuzentzea.

V) Landa-eremuko kulturaren eta ondarearen ezagutza, zabalkundea eta balioa sustatzea, gizarteak orokorrean landa-ingurunean dagozan prozesu eta balioen barririk ez daukala-eta, egoera hori gainditzeko modua dalakoan.

VI) Landa-eremuetako natura-, historia-, kultura- eta paisaia-ondarea berreskuratzea, kontserbatzea, garatzea eta zabaltzea, euskeraren erabilera eta sustapena zeharka bultzatuz.

H) Osasunaren eta gizarte-ongizatearen arloan.

I) Osasun-baliabideak urrunen dagoza eta tamaina txikiena daukien landa-guneetako biztanleengana modu progresiboan hurbilduko dauzan osasun-eskaintza sustatzea, bereziki lehen mailako arretan, pertsona nagusiei eta behar bereziak daukiezan artatze egoki bat eskainiz.

II) Landa-eremuko biztanleriaren beharrianei erantzuteko bereziki diseinatutako farmazia-eskaintza sustatzea.

III) Landa-entitate eta -udalerrietan jarduten dabenean Euskal Osasun Sistemako profesionalei eta zentroeiei bitarteko eta teknologia modernoak eskura jartzea; bereziki, telemedikuntza.

IV) Gizarte-ongizateko ekipamenduen garapenean laguntzea, talderik kalteberenei arreta berezia emanda.

## I) IKTen arloan.

I) Telekomunikazio-azpiegituren hedapena bultzatzea eta horretarako bidea emotea, modu berean Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan, eta bereziki azken teknologiako banda zabalak hedatzea, landa-eremuko eragileek globalizazioan sartzeko eta parte hartzeko aukera izan dagien, holan saihestuko bait da uriko lurraldearen eta landa-eremuko lurraldearen arteko arrakala digitala.

II) Landa-ingurunean zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko sistema barriak ikertu eta bultzatzea, IKTak nahiz lurraldean banda zabalak daukan hedapena baliatuz, eta ordezeko konponbideen bilaketan proaktiboak izanez.

III) 4.0 nekazaritza eta 4.0 abeltzaintza sustatuko dira, akademiarekin eta tokiko enpreekin elkarlanean. Teknologia digitalak landa-ingurunearen garapenean nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea sendotzeko eta hobetzeko erabiliko dira, sektorean beharrezko dan sarea sortuz eta baliabide digitalak zein horreen erabilerarako beharrezko prestakuntza helburu horren eskura jarritz.

## J) Berrikuntzaren arloan

I) Landa-eremuetako eragileen arteko lankidetzak bultzatzea, ikerkuntzako eta berrikuntzako ekintzek benetako beharizanak bete dagiazan.

II) Gaikuntzarako, prestakuntzarako eta trebetasunen garapenerako tresnak eskura jartzea, landa-inguruneako eragileek berrikuntza baliatu ahal izan dagien eta berrikuntza-prozesuetan gaitasun proaktiboak euki dagien. Horrekaz batera, prestakuntza hori euskeraz jasotzeko eskubidea bermatuko da.

III) Ezagutzaren sozializazioa sustatzea, akademiaren, ikerketaren eta aholkularitzaren esparruetatik nekazaritza-elikaduraren sektorerara transferitzen dala ziurtatuz, baita esparru akademikoari nekazaritza-sektorearen behar zehatzak helarazotea bere. Horrez gain, ezagutzaren trukea erraztea azken erabiltzaileen eta elikaduraren balio-kateko mailen artean.

IV) Euskal landa-ingurunean berrikuntza sozialaren eredu jakin bat garatzea; eredu horren oinarriak dira eragile anitzeko ikuspegiak, baterako sorkuntza, herritarren zientzia eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlan-formula barrien aldeko apustua.

V) Talentua landa-eremuetara erakartzeko bide egokiak prestatzea, ekintzailtza bultzatuz eta enpresa berritzaileei inguru horreetan kokatzeko erraztasunak emonez.

VI) Gastronomia eta elikaduraren balio-katearen digitalizazio integrala sustatzea, lurralde adi- mendunaren euskal estrategiarekin bat etorriz.

5. Estatutu honeetako 5. Artikuluan aitatzen dan eskualdean ordezkari handiena daukien eragile sozioekonomiko eta sektorialekin integratzea edo lankidetzan aritzea. Honako honeek hartuko dira holakotzat, gitxienez:

- a) Udalak eta bestelako toki erakundeak.
- b) Eskualdean dagozan sektore ekonomiko nagusietako eta gizarte-, kultura- eta ingurumen-arloko ordezkariak.
- c) Ekintzailtzari, ekonomiaren garapenari edo barrikuntzari laguntzeko entitateak.
- d) Alkartegintza-sare publiko-pribatuko entitateak, bereziki nekazaritzako lanbide-erakundetakoak eta landa-ingurune emakumeen alkar-teetakoak.

6. Administrazioak sentikor bihurtzea arazoaren aurrean,

jardueraren xede diran inguruneen barruko baliabideen aprobetxamenduari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, eta inguru horreen garapen harmonikoa eta osokoa lortze aldera.

7. Landa Garapenaren arloari buruzko informazio guztia jasoten eta banatzen dauan zentroko kideei zerbitzu emotea; zeregin hori, gehienbat, hauxe jakitea izango da: une oro zein zuzkidura, baliabide eta proiektu dagoan, ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAK edo bere kideek egiteko modukoak.

8. Kideei aukera emotea landa-garapenean esku hartzeko metodologiak eta esperientziak euren artean truka daiezan.

9. Garapen-programetan parte hartzea eta horrelako programak egitea, beti be aukera bardintasuna edo justizia sozialaren moduko balioak bultzatzen dabean eredu sozial eta ekonomikoa bilatzen badabe.

10. Garapenerako lankidetzak.

11. Administrazio Publikoak bultzatu edo onartutako landa inguruetak, edo Alkartek eragiteko daukan esparru geografikoan, garapenerako Plan edo Egitarauen kudeaketan edo/eta Komunitateko egitarau eta manuen xedapenen gauzatze markoan alkarlana, beti eskatzen jakonean eta beren beregi eurekatz sinatuko diran Itunen arabera.

3. artikulua- Helburu horreek lortzeko, jarduera honeek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren eta genero ikuspuntua kontuan hartuta:

1. Jardueraren xede diran inguruneen ehun soziala sentikor bihurtzea, heuren dauzen garapen-interesaren alde egingo daben proiektu, arazo, baliabide eta ekintzekiko.

2. Landa-garapenerako proiektuak bultzatzea Landa Garapenerako Legea eta landa inguruen garapenera buruzko Bizkaian aplikagarria dan legeriaren esparruan.

3. Ingurune horrek dauzan garapen-arazoei buruzko mintegiak,

hitzaldiak, jardunaldiak, ikerketak eta azterlanak antolatzea, koordinatzea eta egitea; eta, halaber, halan bajagoko, era guztietako materialak argitaratzea, hala idatzitakoak, ikus-entzunezkoak nola elektromagnetikoak, espezializatuak, didaktikoak, prestakuntzarakoak edo dibulgazio hutserakoak izanik ere.

4. Landa Garapenari buruzko programak edo proiektuak edozein instantziari eskatzea eta, halan bajagoko, programa edo proiektu horrek gauzatzea.
5. Garapenari lotutako alkarte guztiak eta, gehienbat, ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEko kideak era egokian prestatzeko eta eguneratzeko beharrezkoak izan daitezkezan ekintza edo jarduera guztiak antolatzea, prestatzea eta gauzatzea.
6. Antzekoak diran erakundeakaz batera jarduteko ildoak bilatzea eta esperientzien trukea bultzatzea.
7. Aurreko jarduerari lotuta egon daitezkezan jarduerak, edo horreetan aurrekaririk edo ondoriorik izan daikeen jarduerak egitea.
8. Helburuak behar bezala beteteko egokiak izan daitezkezan hitzarmenak kontratatzea eta finkatzea administrazio publikoakaz.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEak, bere xedek beteteko, honako honeek egin ahalko dauz, beti be erantzukizun sozial, ekonomiko eta ingurumeneko eta bardintasuneko erispideak kontuan hartuta:

1. Helburuak beteteko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
2. Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta euki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
3. Edozelango ekintzak burutu, betiere legeakaz eta Estatutuakaz bat etortekotan.



4. Pertsona fisiko zein juridiko, publiko zein pribatu eta maila guztietako Administrazio Publikoakaz zuzenbidean onartutako edozein erataraz kontratatu.

#### ALKARTEAREN HELBIDEA

4. artikulua.- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAREN helbide nagusia: Margarita Maturana 7; udalerrria: Berriz; PK: 48240.

ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAK beste lokal batzuk be euki daikez Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak halan erabagiten badau.

#### LURRALDE EREMUA

5. artikulua.- Bere funtzioak beteko dauan lurralde-eremu nagusia Durangaldea izango da, udalerrri honeek osotzen dabela: Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Ermua, Iurreta, Garai, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, eta Zaldibar, eta baita be gainontzeko Bizkaiko eskualdeak, zabaldu eta maila ezbardinetako federazioak bultzatu leikiela.

#### IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

6. artikulua.- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluaren esaten dan bezala ezohiko Batzar Orokorrean hartutako erabagi bidez baino ezingo da desegin, edo legetan araututako arazoiren batengaitik.

Alkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira alkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein beteten ez daben itunak, estatutu-xedapenak eta erabagiak.

Alkartearen jokaera 4/2005eko Bardintasuneko Legea eta 8/2015eko Emakume Baserritarren Estatutua eta etorkizunean euren balizko aldaketa edo eguneraketan araberakoa izango da

#### BIGARREN KAPITULUA

## AGINTE- ETA ADMINISTRAZINO-ORGANOAK

7. artikulua:- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA “URKIOLA”- “URKIOLA” DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAren agintea eta administrazioa kide anitzeko organo honeen esku egongo da:

1. Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
2. Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

## BATZAR OROKORRA

8. artikulua.- Batzar Orokorra ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA “URKIOLA”-“URKIOLA” DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAren bazkide guztiek osatzen dabe, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Udal zein kideak diran beste entitateentzat botoak baliozkoak izateko batzar egunean bertan egon edo ordezkatuta egon beharko dabe.

Udal bakotxaren ordezkapenaren botoak parametro biren arabera kalkulatu dira eta guztizko botoen kopurua parametro biren batuketa izango da:

- 1- Indarrean dagoan urteko urtarrilaren 1ean dagozan biztanleak, botoak kalkulatzeko 4 tarte ezartzen dirala:
  - a. 4.000 biztanleraino, boto 1
  - b. 4.001 eta 8.000 biztanleren artean, boto 2
  - c. 8.001 eta 16.000 biztanleren artean, 3 boto
  - d. 16.000 biztanle baino gehiago, 4 boto
- 2- Indarrean dagoan Landa Garapenerako Programaren epealdian Eusko Jaurlaritzan ardura daukan organoaren sailkapenean eremu ezbardinen zaurgarritasunaren batez besteko maila (udalerriko entitate bakotxaren zaurgarritasun eremu bakotxaren mailaren batuketa zati entitate kopurua eta gero eremu guztien arteko batuz besteko aritmetikoa). Epealdi bakotxeko datuak eta euren

aldaketak Batzar Orokorrean onartuko dira. Parametro honen arabera udal bakotxaren boto kopurua 0 eta 4ren artean egongo da.

Udalak ez diran kideen ordezkartzaren botoak kalkulatzeko "URKIOLA LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA"k jarduten dauan esparru geografikoan entitate horren idazkariak, Batzar Orokorra hasi baino lehen, urte horretako urtarrilaren 1ean ziurtatzen dauan bazkide kopuruaren arabera kalkulatu da eta parametro honen arabera izango da:

- a. 10 kidera arte, boto 1
- b. 11 eta 50 kide artean, boto 2
- c. 51 eta 100 kide artean, 3 boto
- d. 100 kide baino gehiago, 4 boto

Jagokoa ziurtagiria aurretik aurkeztu ezean, Batzar Orokorraren bilera parte hartuko dauan entitateak boto bakarra eukiko dau.

**9. artikulua.-** Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

1. Alkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
2. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
3. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
4. Estatutuak aldatzea.
5. Alkartea(k) desegitea.
6. Presidente, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badagoz, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horrek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.
7. Beste alkarte batzuek batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horreetatik ateratzea.

8. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabagiak hartzea.
9. Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar jakela erabagitea, halan komeni bada.
10. Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hori, halanda be, Batzar Orokorrak aginte-organoari eskuordetu daikio horretarako bereziki hartutako erabagiaren bidez.
11. Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabagia hartzea.
12. Beste organo sozialen bati esleitu bako beste edozein eskumen esleitzea.

Urteko aurrekontu ekonomikoak onartzeko bozketetan bertan partaidetza ekonomikoa daukien entitateak bakarrik parte hartu ahal izango dabe.

10. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo dauz.
11. artikulua.- Batzar Orokorrak gitxienez urtean baten egin beharko dau ohiko bilkura, **9. artikuluko 1), 2) eta 3)** idatz-zatietan zehaztutako erabagiak hartze aldera.
12. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabagiten dauanean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen % 25ek eskatu dualako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, edozelan be, honako gaiok aztertzeko eta erabagiteko bilduko da:
  1. Estatutuak aldatzeko.
  2. Alkartea desegiteko.
13. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazo beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diran gaien aipamen zehatza jasota. Deialdia egiten danetik, gitxienez bost egun igaro beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala bajagoko, bigarren deialdiaren data eta ordua be adierazo daitezke. Dana dala, deialdi batetik bestera gitxienez ordu erdiko tarte itzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emoteko eskubidea daben bazkideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emoteko eskubidea daben bazkideak diran entitateen kopurua edozein dala be.

14. artikulua.- Batzar Orokorraren erabagiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago diranean.

Dana dan, bertaratutakoen edo ordezkatutakoen gehiengo osoa beharko da (bozketan bertan egon edo ordezkatuta dagozan botoen erdia gehi bat), honako erabagi honeek hartzeko:

1. Alkartea desegitea.
2. Estatutuak aldatzea.
3. Ondasunak erabili edo besterentzea.
4. Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea. Alkartearen kudeatzailea egon ezaren kasuan.

Aurrekontu ekonomikoetako bozketetan udal ordezkariak lehenengo bozketetan aho batezko adostasuna lortzen ahaleginduko dira

15. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideri emon ahalko deutse beraiek ordezkatzeko ahalmena Batzar Orokorreran. Ordezkaritza hori emoteko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik euki beharko dau eta hartu izanaren agiria emongo dau.

#### ZUZENDARITZA BATZORDEA

16. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraiki alkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dauzan organoa. Bazkideek baino ezingo dabe osotu ordezkari-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osotuko dabenak honakoak izango dira:

- Presidentea
- Idazkaria

- Diruzaina
- Presidenteordea
- Batzordekideak: gehienez, 5

Zuzendaritza batzordeko osaketan, udalek, ahal dan neurrian, eskualdeko sensibilitate politiko ezbardinak ordezkatu beharko dabez.

Zuzendaritza Batzordeko osaketak, ahal dan neurrian, gizon eta emakumeen ordezkariak orekatuko erispideei erantzungo deusie. Batzar Orokorrean emakume ordezkarien kopurua Zuzendaritzan Batzordean parte hartu behar dabenen bikotxa baino txikiagoa danean, ulertuko da ez dala posible orekatua izatea.

Urriaren 15eko 8/2015 ko Emakume baserritarren Estatutuen Legearen 7.5 artikuluan ordezkariak orekatua zer dan zehazten da: lau pertsona baino gehiagoko organoetan sexu bakotzak gitxienez % 40ko ordezkariak daukanean eta lau pertsona baino gitxiagokoetan sexu biak ordezkariak dagozanean.

Zuzendaritza batzordeko osaketan, Alkartearen lurralde zein jarduerako sektore ekonomiko ezbardinak ordezkatu beharko dauz.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horreetara 3 biderrez jarraian, edo, tarteka 6 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua itzi egin beharko dau, hutsegite horrek ez badauz arrazoitzen.
18. artikulua.- Batzar Orokorak hautatuko dauz Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horreek 4 urtetarako izendatuko dira Batzordeak berriaz baliobakotu ezean. Kargudun berbera behin eta berriz hautatu ahal izango da. Epealdi hori udalen legealdiarenagaz bat etorriko da. Udal hauteskundeetako urteko barrizaketa behin udalbatza ezarri eta ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAn euren ordezkariak izendatu eta gero egingo da.
19. artikulua.- Pertsona juridikoen ordezkariak baldintza honeek bete beharko dabez Zuzendaritza Batzordeko kide izateko:

1. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dagozan legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
2. Estatutuetan xedatutako moduan izendatua izatea.
3. ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEko bazkidea dan erakunde baten ordezkaria izatea.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehenengoz, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar dau, eta, gero, izendatutako horrek kargua onartu behar dau.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabagi daike Batzar Orokorrak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua itziko dabe honelakorik gertatuz gero:

1. Agintaldia bukatzen danean.
2. Dimititzen dabenean.
3. Bazkide izateari izten deutsiengan, edo kargua beteteko ezintasun-arrazoiak dabezanean.
4. Estatutu honetako **17 artikulua** aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliobakotzea erabagiten dauanean.
5. Estatutu honen **18. artikulua** dinoana aplikatzeagaitik.
6. Kidea dan entitate juridikoa desegiteagaitik.

Baldin eta kargua uzteko arrazoia "1" idatz-zatian agertzen dana bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dabe lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan, kargudun barriak aukeratuko dira.

Arrazoia 2., 3., 4., eta 5. idatz-zatietan agertzen dana bada, barriz, hutsik geratu dan kargua beteteko norbait behin-behingo izendatuko dau Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabagiko dau izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badau, behar diran kargu-

izendapenak egingo dauuz. Bere agintaldia ordezkatzeko dauan pertsonarena amaituko zan artekoa izango da.

Organo honen osakeran egiten diren aldaketa guztien barri emongo jako Elkarteen Erregistroari.

22. artikulua.- Hona Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

1. Alkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideakaz bat etorritik eta haren kontrolpean.
2. Alkarteak aurrera eroango dauzan ekintzen egitaraua egitea.
3. Gastu eta sarreren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, haren onartu daiazan.
4. Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabagitea.
5. Bazkideek egiten dabean proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horren inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
6. Estatutu honetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, beti be alkarteen inguruan indarrean dagozan legeakaz bat etorritik.
7. Batzar Orokorrak berariazko erabagien bidez emoten deutzan eskumenak erabiltea, beti be, ez badira haren eskumen esklusibokoak.

23. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidenteak erabagi edo batzordekide batek eskatzen dauan bakotxean egingo dira. Bilkurako buru presidentea izango da, ez balego, presidenteordea; eta horren faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabagiak baliozkoak izateko, biltzen diran batzordekideen gehiengoak aldeko botoa emon behar dau. Horretarako, gitxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko dau bilkuran. Bardinketarik egonez gero, presidentearen kalitateko botoa izango da erabagiko dauana.



Idazkariak bilera-aktak egingo dauz eta akta horrek gero jagokon liburuan transkribatuko dira.

## ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEAK

### PRESIDENTEA

24. artikulua.- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEko presidentek bere gain hartuko dau alkartearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabagiak gauzatuko dauz. Era berean, aipaturiko organo bi horreetako presidentea izango da.

25. artikulua.- Presidenteak honako ahalmen honek izango dauz:

1. Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat emon, bileretan sortzen diran eztabaidak bideratu, eta boto-bardinketa gertatuz gero kalitate-botoaren bidez ebaztea.
2. Alkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta alkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
3. Baliotasunez erabagitako ordainketak egiteko agintzea.
4. Sortzen diran premiazko arazoak konpontzea, eta egiten dan lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren barri emotea.
5. Batzar Orokorrak berariazko erabagi bidez emoten deutzazan eskumenak erabiltzea, beti be ez badira haren eskumen eskusibokoak.

### PRESIDENTEORDETZA

26. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko deutso, eta presidentek aldi batean bere kargua bete ezin badau, presidentek ordezkatuko dau. Era berean, presidentek berariaz eskuordetzen deutzazan ahalmen guztiak izango dauz.

## IDAZKARITZA

27. artikulua.- Idazkariari jagoko, zehazki, alkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, alkarteen arloan indarrean dagozan legezko xedapenak beteteaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, alkarteen liburuaren eta artxiboen eukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen barri emoteko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

## DIRUZAINITZA

28. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen barri emongo dau diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera be jakinaraziko dau. Horrek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar deutsoz, eta horrek Batzar Orokorrari, harek onartu dagiazan.

## BATZORDEKIDEAK

29. artikulua.- Batzordekideek nor karguari jagokozan funtzinoak izango dauz, Zuzendaritza Batzordeko kideak diran aldetik (alkarteen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen deutesizana be.

## HIRUGARREN KAPITULUA

### BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

30. artikulua.- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEKide izan nahi eta baldintza honek beteten dabezan pertsona juridiko guztiak izan daitezkezk alkarteko bazkide:

1. 5. artikuluan aitatzen dan eskualdean bere jarduera garatzen dauan pertsona juridikoa. Eskumena dauen organoak bere baitan hartutako erabagi baliodunaren kopia aurkeztu behar dabe eta instituzio izaera daukienen kasuan bertan adieraziko dira bai alkartzeko borondatea, eta baita be pertsona juridikoaren izenean arituko danaren izendapena.

2. Ordezkariek adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izan behar dau, norberaren eskubideak erabilteko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez eukitzea. Sexu bien ordezkariak orekatua lortzeko asmoagaz kidea dan entitate bakoitzak ordezkari bi izendatuko dauz, bakotxa sexu batekoa. Kidea dan entitate baten sexu bateko kiderik egon ezean (egoera hau justifikatu beharko da) baldintza hau ez da aplikatuko. Kide bakotxak ordezkari bi euki arren, Batzar Orokorrean boto bakarra eukiko dau.

3. Udalen kasuan, ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAN, ordezkariak alkateari jagoko (edo berak eskuordetzen dauanari) eta beste sexukoa dan beste bateri, beti be alkatea, edo bera ordezkatzeko dauanaren beste sexukoa. Ordezkariak honen akordioaren kopia ekarri behar da.

31. artikulua.- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAN sartu nahi dauanak idatziz aurkeztu beharko dau eskabidea, bi bazkideren sinaduragaz eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren barri emongo deutso Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabagiko dau eskabidea egin dauana alkartean onartu ala ez. Erabagiaren aurkako gora joteko errekurtsioa jarri daikio Batzar Orokorrari.

#### BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

32. artikulua.- Bazkideentako entitate guztiek eskubide honeek daukiez:

1. Alkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabagi eta jardunak aurkaratzea, aurkaratutako erabagiaren eukia ezagutu daben edo ezagutzeko aukera izan daben egunetik egutegiko berrogei eguneko epean.
2. Alkartearen gobernu- eta ordezkariak-organoen osakerari, alkartearen kontu-egoerari eta alkartearen jarduerari buruzko informazioa jasotea.
3. Alkarteko beste bazkide eta euren ordezkarien nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta alkartearen ekintzen garapeneraren

barri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian xedatutako moduan.

4. Batzar orokorretarako deiak jasotea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emoteko eskubidea erabiltea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku itzi ahal izatea.
5. Alkartearen Estatutu honeen arabera, alkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horretarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
6. Indarrean dagozan legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta alkartearen ikurra, baldin badau behintzat, erabiltea.
7. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana eukitea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
8. Alkartearen talde-ekintzetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (alkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
9. Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horrek hartzea eragin daben arrazoiei buruzko azalpenak jasotea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei jagokezan betebeharrak ez beteteen soilik oinarritu daitezke.
10. Edozein unetan baja emotea. Halanda be, hartu bai baina bete barik dabezan konpromisoak bete beharko dabez.

33. artikulua- Hona bazkideen betebeharrak:

1. Alkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horrek beteten laguntzea.
2. Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari jagokezan bestelako ekarpenak ordaintzea.
3. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetea.
4. Alkarteko zuzendaritza-organoek baliotasunez hartutako erabagiei men egin eta erabagi horrek betetea.
5. Alkartearen Batzar Orokorretara joatea.

## BAZKIDE IZATEARI IZTEA

34. artikulua.- Bazkide izaera arrazoi honeengaitik galduko da:

1. Pertsona juridikoa deseginez gero.
2. Bazkidea bere borondatez joanez gero. Alkartean baja idatziz aurkeztu beharko da eta jaso dalakoaren agiria hartu beharko da. Hartzen danetik eragina baliogarria izango da.
3. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu honeetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larriz ez betetea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliiodunei jagokenez.
4. Kidea izateko baldintza zehatzak galtzeagaitik
5. Sexu edo beste edozein diskriminazio, zigor administratibo edo penalengaitik.

## ZIGOR-ARAUAK

35. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badabez Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabagiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horrek zigortu ahal izango dauz.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta alkartetik betiko kanporatzera arteko zigorra ezarri daike, ondoko artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitekezan jokabideak aztertzeke ikerketa egin dadila erabagi daike presidenteak. Ikerketaren instruktorea idazkaria izango da, eta berak proposatuko deusoz Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Kideren batek Batzar Orokorrera 3 aldiz jarraian, edo, tarteka 6 aldiz agertzen ez bada, agertzen dan hurrengo Batzar Orokorrean ez dau izango botoa emoteko eskubiderik.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango dau, idazkariak ez dau horretan parte-hartzerik izango (instruktorea dalako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko jako.

Zigortzeko erabagia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabagi horren aurkako errekurtsua jarri ahalko jako Batzar Orokorrari.

36. artikulua.- Bazkideren batek alkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badau, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabagietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten badauz, gertaeren barri izatean, presidenteak idazkariari agindu daikio aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin dagiazala, behar dan informazioa jasoteko. Eginbide horreek ikusita, presidenteak jarduerak artxibatzeke agintzea edo alkartetik kanporatzeko zigor-espeditenteari hasiera emotea erabagi daike.

37. artikulua.- Alkartetik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ostean, idatzi bat bidaliko deutso interesdunari, leporatzen jakozan karguen barri emoteko. Kargu horreei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango dauz hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edozelan be, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko dau erabagia. Erabagian ez dau botorik izango espeditenteko instruktorea izan dan idazkariak.

Alkartetik kanporatzeko erabagia interesdunari jakinarazoko jako eta, era berean, hurrengo ezohiko Batzar Orokorrean errekurtsua aurkeztu daikela azalduko jako. Hiru hilabeteren barruan batzarrik egiten ez bada, batzar bat egin beharko da horretarako bakarrik. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabagi ahal izango dau, eta Zuzendaritza Batzordeko kidea bada, kargu hori iztearazo beharko deutso.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espeditentea aurkeztu ezkeru, idazkariak espeditentearen laburpena egingo dau, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen barri zehatza Batzar Orokorrari emon ahal izateko, azken horrek dagokion erabagia har daian.

38. artikulua.- Kanporatzeko erabagia arrazoitu egin behar da beti, eta erabagi hori interesdunari jakinarazi behar jako. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango dau bere ustez erabagia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

39. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren barri emoterakoan, berak nahi izanda edo zigorra ezarri jakolako, bete barik dauzan betebeharrak bete daiazala eskatuko jako.

## LAUGARREN KAPITULUA

### ALKARTEAREN ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

40. artikulua.- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAREN ONDAREA 18.030,36 eurokoa da.

41. artikulua.- Alkartek, bere jarduerak aurrera erodateko, diru-baliabide honeek aurreikusten dauz:

1. Ondare-ekarpenak.

2. Erabagiten diran aldizkako kuotak. URKIOLA LANDA GARAPENERAKO ALKARTEAREN gastuei aurre egiteko ekarpenak, egiten dabean entitateen artean adostutako parametroen arabera kalkulatu dira

3. Alkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta lege jasoten dauzan dirulaguntzak, legatuak eta dohaintzak.

4. Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dauzan jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ALKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urtebetekoa izango da, eta urte bakoetako abenduaren 31n itxiko da.

Jarduera ekonomikoak gauzatuz (zerbitzuak emotea barne) alkartek lortzen dauzan irabaziak bere helburuak beteteko baino ez dira erabili behar. Ezelan be ezingo dira bazkideen artean banatu, ez eta euren ezkontideen edota euren antzeko afektibitate-harremanean bizi diran pertsonen artean eta euren senideen artean be. Ezingo jakez, era

berean, irabazteko asmoa daben pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

## BOSGARREN KAPITULUA

### ESTATUTUAK ALDATZEA

42. artikulua.- Estatutuak aldatzea horretarako deitutako bazkideen ezohiko Batzar Orokorrean erabagi behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko dau, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko dau egitasmoa amaitzeko epea.

43. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidenteak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko dau. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko dau edo, bestela, lantaldeari itzuliko deutso, barriz aztertu daian.

Onartua izan ezker, Zuzendaritza Batzordeak egiten dan hurrengo Batzar Orokor ezohikoaren gai-zerrendan sartzea erabagiko dau.

44. artikulua.- Batzarrerako deiagaz batera, Estatutuetak aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen jakezan zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horrek Batzar Orokorrari helarazoko jako, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dabe. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Okorrak Estatutuak aldatzeko erabagia hartuko dau, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen danetik aurrera baino ez dau eragina izango hirugarrenengan.

## SEIGARREN KAPITULUA

### ALKARTEA DESEGITEA ETA ALKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

45. artikulua.- ASOCIACION DE DESARROLLO RURAL DE DURANGALDEA "URKIOLA"- "URKIOLA" DURANGALDEKO LANDA GARAPENERAKO ALKARTEA honelako kasuetan desegingo da:



1. Bazkideak diran entitateek halan nahi dabelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete dalako.
3. Beste alkarte batek xurgatu daualako edo beste alkarte batzuekatz bat egin daualako.
4. Legez ezarritako gitxieneko bazkide-kopururik ez daualako.
5. Epai irmo batek alkarte desegitea agintzen daualako.
6. Alkartearen helburuak betetea ezinezkoa daualako.

46. artikulua.- Alkarte deseginez gero, horixe erabagiten dauan batzar orokor ezohikoak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko dau, eta harek hartuko dauz bere gain dagozan funtsak.

Bazkideekiko eta besteekiko alkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen dan alkarte-ondarea, geratzen bada, behintzat, irabazi-asmorik bako erakunde bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimene bati emon beharko jako.

#### AZKEN XEDAPENA

Estatutu honek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango dau, baina horrek ezelan be ez dauz Estatutu etako aginduak aldatuko.